

# EHUN MILATIK (100.000tik) GORA DIRA AZKEN URTEOTAKO ETORKINAK EUSKAL HERRIAN

Paulo AGIRREBALTZATEGI

Euskaltzalea, idazlea eta editorea

**U**dalbiltzak eraginda, liburu oso interesgarri eta baliagarria landua eta argitaratua du Aztiker Ikerlanean: *Euskal Herria datuen talaiatik. 2006* –“EHDT-2006”, hemendik aurrera– (Txalaparta, Tafalla, 2006). Euskal Herria beraren osoan hartzen du liburuak, estatistika-datuak aztertu eta eskaintzean. Bigarren emanaldia da oraingo hau. Bertan kapitulu zabala du “Migrazio mugimendua” atalak (114-133 or.). Horko irizpide eta datu zenbaitez baliatu gara *Herria-2000-Eliza-ren* zenbaki honetarako. Horiek osatu ahal izan ditugu Cáritas-ek Hego Euskal Herriari buruz eskaintako datuekin, eta gehienbat INE-tik hartutakoekin: “Algunas cifras de la situación [de la inmigración]” deituriko txostena –aurrerantzean ACS–.

Beren herrialdeetako langabeziatik edota pobretasunetik iheska, azken urteotan Euskal Herrira lanera eta bizitzera etorri direnei buruz ari gara hemen. Azken urteotako horrelako inmigrazioa ez da Frantziatik edo Espainiatik abiatu, oso gutxi Europar Batasuneko herrialdeetatik ere; Europar Batasunetik kanpoko herrialde europarretatik eta Asiatik, eta askoz gehiago Afrikatik eta Amerikatik etorritako etorkinez ari gara. Ez ditugu, beraz, kontuan hartzen, adibidez, Frantziatik eta Europako bestelako herrialdeetatik bereziki Ipar Euskal Herrira bizitzera etorritako pentsiodunak, nahiz eta fenomeno hori garrantzizkoa izan Euskal Herriko populazioaren mugimendua eta konposizioa aztertzean.

Noiztik kontaktzen ditugu “azken urteok”? 1990etik honakoak har genitzake. Izan ere, Aztiker Ikerlanean datuen arabera, 1990etik aurrera hasten da, hona etorritakoen kopurua bertotik joandakoen kopurua gainditzean, “inmigrazio berriaren” eraginez (ik. 121. or.): 1990-1999 urtetako inmigrazioaren alderako saldoa 23.086 lagunena izan zen Euskal Herri osoan, eta 1999-2005 bitartekoa, 72.684 lagunena.

Zenbat eta nongoak dira guztitara etorkinok Euskal Herrian? Iturri beretik hartuta, hona hemen Europar Batasunetik kanpoko etorkinen taula, 2005ekoa, Kontinentez emanda eta Euskal Herriko herrialdez adierazita (kopuru absolutuak eta ehunekoak) (EHDT-2006, 132. or.).

100.000tik gora dira, beraz, pobretasunetik eta langabeziatik azken urteotan gure Herrian lan egi-tera eta bizitzera aldatu direnak. Nafarroa Garaia etorri dira gehienak, kopuru absolututan nahiz bertako populazioarekiko kopuru erlatibotan (%8); gutxiago Bizkaira kopuru absolututan eta batez ere erlatibotan (%2,8); Nafarroakoa baino askoz txikiagoa izan da Gipuzkoako inmigrazioa kopuru absolutu nahiz erlatiboan (%2,3), baita Arabakoa ere (%4,5); askoz beherago geratzen da oraindik Lapurdiko inmigrazioa kopuru absolutu nahiz erlatibotan (%1,4); eta ia ezereza da azken urteotako inmigrazioa Nafarroa Beherean (%0,11) eta Zuberoan (%0,12) –darabilgun iturriak dioenez, Iparraldeko datuak 1999 artekoak dira–. Nafarroako inmigrazio-tasaren eta EAE-koaren arteko aldea ho-

	EUSKAL HERRIA								
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.
GUZTIRA	106.462	12.959	31.569	15.823	1.453	33	44.605	20	
Europa (EB-tik kanpokoak)	13.951	1.349	3.694	2.035	223	13	6.628	9	
Afrika	24.580	4.471	5.894	3.076	854	9	10.270	6	
Amerika	63.089	6.374	19.876	9.796	260	11	26.767	5	
Asia	4.691	760	2.034	867	116	0	914	0	
Ozeania	145	3	68	49	-	-	25	-	
Apatridak	6	2	3	0	-	-	1	-	
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Europa (EB-tik kanpokoak)	13,1	10,4	11,7	12,9	15,3	39,4	14,9	45,0	
Afrika	23,1	34,5	18,7	19,4	58,8	27,3	23,0	30,0	
Amerika	59,3	49,2	63,0	61,9	17,9	33,3	60,0	25,0	
Asia	4,4	5,9	6,4	5,5	8,0	0,0	2,0	0,0	
Ozeania	0,1	0,0	0,2	0,3	-	-	0,1	-	
Apatridak	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	0,0	-	

netara argitzen du ACSeK: "...La CAPV está al principio de una dinámica irremediable de progresión de la población inmigrante. La situación de la inmigración está en un momento en el que se pueden trabajar sus distintos aspectos cara a crear una sociedad multicultural".

INE-k argitaraturiko datuen arabera, zerbait gorago dabilta bai EAEko herrialdeetako eta bai Nafarroako kopuruak; baina estatistika horietan EBkoak ere sartuta daude zalantzarik gabe. Horren arabera, EAEko populazioaren % 3,4 litzateke atzeritik etorria -jakina, INEren estatistikek ez dituzte kanpokotzat hartzen Espainiatik EAera etorritakoak-.

Lapurdiko inmigrazio gehien-gehiena Afrikatiko da; seguruenik Frantzia osoak Afrikan duen erakarmen bereziagatik, batez ere Afrika frankofonoan edo Frantziako koloniako izandako herrialdeetan. Alderantziz, Hego Euskal Herriko etorkin gehien-gehienak Latinoamerikako herrialdeetakoak dira, seguruenik gaztelaniaz baliatzeko aukera handia dutelako. Datu hori adierazgarria da, besterik gabe, euskararen aldeko politikari begira, frantsesa dakiten etorkinak Iparraldean eta gaztelania dakitenak Hegoaldean erosoago sentituko direlako, euskara ikasi beharrik gabe ere.

**"Organizar una convivencia basada en el respeto mutuo y la comprensión mutua entre los nacidos aquí y los venidos de fuera va a ser un reto fundamental para los vascos del siglo XXI".**

Berriro ere Aztiker-en iturria joz, eta etorkinen eskolatzeari dagokionez, hona liburuak dakartzan datuak (133. or.): "Nafarroa Garaian 2003-2004 ikasturtean, ikasle etorkin ia guztiak (%99,8) G ereduan zeuden matrikulatuta, hots, euskara ikasgai gisa ere lantzen ez duen ereduan. Araban, 2004-2005 ikasturtean %75 A ereduan zegoen matrikulatua eta % 4,7 besterik ez D ereduan. Bizkaian %54,9 A ereduan eta %22,5 D ereduan. Gipuzkoan B ereduan kokatzen dira etorkin gehienak (%45), eta ondoren D ereduan, etorkinen %37,3. A ereduan matrikulatutakoak %17,7 dira. Etorkinak, beraz, eredu jakin batzuetan piltzen dira".

Eta honako gogoeta hauekin amaitzen dute aztertzaileek Migrazioaren atala:

*"Begi-bistakoak dira errealitate honek izan ditzakeen ondorioak; bai etorkinen integrazio prozesuan, baita euskararen eta Euskal herriaren etorkizunean ere. Gauzak horrela, bertan jaiotakoak eta kanpotik etorritakoak arteko errespetuan eta elkar ulertzean oinarritutako bizikidetzaren antolatzea funtsezko erronka izango du XXI. mendeko euskal herritarrok".*

Interesgarria litzateke oso azken urteotako etorkinon lanbideen datu estatistikoak izatea; horiek erakutsiko ligukete, besteak beste, etorkinon status soziala. Zoritxarrez EHDT-2006 liburuak ez digu horrelakorik eskaintzen. Baina ACS txostenaren arabera, eta Espainiako beste Komunitate Autonomoei begiraturaz, horietako hainbatek EAEk baino inmigrazio-tasa askotxo handiagoa du; honetara ematen du horren arrazoia: "Es evidente que en las zonas de actividades económicas que requieren una mano de obra abundante hay tendencia a una mayor presencia de personas inmigrantes; es el caso, por ejemplo, de las zonas de gran actividad agrícola".

Era berean jakingarriak lirateke etorkinon lanegoerari buruzko datuak ere; ACS txostenak EAE-ri buruz ematen dizkigun datuen arabera 23.744 atzeritar daude (2005eko datuetan) Segurantzaren Sozialesan sartuta. Beraz, txosten berak ematen digun etorkinen -atzeritarren- kopuruaren laurdena baino zerbait gehixeago, baina ez da herenera iristen.

Horrek, jakina, zerikusirik asko du etorkinen egoera legal eta administratiboarekin, zeren eta ACS txostenak dioenez, "La residencia legal es la situación que da a las personas inmigrantes la posibilidad de vivir y/o trabajar legalmente sin mayores restricciones". Agustín Unzurrunzaga-ren iritziz, berri, (*Hika*, 174. zenb., 2006, 25. or.), "los y las inmigrantes han sido y son víctimas de un mercado laboral pensado y organizado para la precariedad...". Gauza bertsua esan ahal da seguruenik Euskal Herriko inmigrazioari buruz ere. Izatez, eta ACS txostenak berak argitzen digunez, 39.309 atzeritarrek zuen egoitza-baimena EAEn, txosten berak ematen duen 72.767 atzeritarren kopuru osotik. Erdiak baino zerbait gehixeago, beraz. Uste izatekoa da, 2006 askotxo handitu dela egoitza-baimena lortu dutenen kopurua, Espainiako Gobernuak urte honetan eskainitako aukeraz baliatuz.

Azkenik, etorkinen familia egoerak adierazten du sarritan horien arazoak, atsekabeak eta sufrimenduen neurria. Horrekin zerikusirik dute ACS txostenak eskaintzen dizkigun datuek, EAEko etorkinen sexuari buruzkoak. Horien arabera, etorkinen %48,7 dira emakumeak. Txosten berak ohar-tarazten gaituenez, Latinoamerikatik datoz batez ere emakume etorkinak.